



AGINDUA, JAURLARITZAKO BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, EUSKAL ENPLEGU FOROAREN ERREGLAMENDUA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarenak, ezartzen du Eusko Jaurlaritzak zer prozedurari jarraitu behar dion xedapen orokorrak egiteko, baldin eta, edozein gairi buruzkoak izanik ere, ordenamendu juridikoa berritzen duten arau juridikoak badituzte eta lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen badute.

Prozedura honetan, kontuan hartu behar da aipatutako legearen 4. artikuluan xedatutakoa. Izan ere, lege horrek ezartzen du zer kalitate-printzipiori lotu behar zaion erregelamenduak egiteko ahala, orain interesatzen zaigunerako, bai eta 12. artikuluan xedatutakoa ere. Artikulu horrek ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren arabera eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela, eta 13. artikulua ezartzen du zer eduki jaso behar den prozedura hasteko agindu horretan.

Azaldutakoa oinarri hartuta, honako puntu hauek garatzen ditu agindu honek:

Arauaren xedea eta helburua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen (aurrerantzean, EEL) 83. artikulua Enpleguaren Euskal Foroa sortzen du, enplegu-politika publikoetan parte hartzeko organo gisa, enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita. EELk, enplegu-politika publiko eraginkorrak eta parte-hartzaileak sustatzeko konpromisoan, espazio formal bat eratzen du Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politiken diseinuan, garapenean eta ebaluazioan hainbat eragilek parte hartzeko.

EELren 83. artikulua hirugarren paragrafoak honako hau jasotzen du: "*Haren osaera, kideen izendapena eta antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea erregelamendu bidez zehaztuko dira, eta, nolanahi ere, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua bermatu beharko da.*" Beraz, garatu nahi den xedapenak aipatutako lege-aginduari erantzuten dio.

Horrela, bada, EELe ezarritako gobernantza-eredua osatzeko beharrari erantzuten dio erregelamendu-garapenak, funtsezko zeregina ematen baitio elkarrikeria sozialari eta hainbat eragile enplegu-politiken definizioan eta jarraipenean parte hartzeari. Arau honek eredu hori gauzatu nahi du, gizarte-eragileen eta beste sektore garrantzitsu batzuen inplikazio aktiboa eta adierazgarria erraztuko duen arau-esparru bat ezarriz.

Enpleguaren Euskal Foroa abian jartzeko, funtsezko alderdiak argi eta zehatz arautu behar dira, hori gabe ezin izango baita eraginkortasunez jardun enplegu-politika publikoetan parte hartzeko organo gisa. Erregulazio hori ezinbestekoa da foroak inplikaturako eragileen arteko elkarrikerarako eta lankidetzarako espazio erreal eta eraginkor gisa funtzionatuko duela bermatzeko.



Proposatutako erregulazioaren edukia.

Dekretuaren helburu espezifikoaren artean dago Enpleguaren Euskal Foroaren osaera zehaztasunez definitzea, parte hartzen duten erakunde eta antolakundeek ordezkaritzan oreka bermatuz, bai eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ere. Era berean, barne-antolamenduaren eta -funtzionamenduaren araubidea arautuko da, eta bileren aldizkakotasunari, deialdi-mekanismoei eta erabakiak hartzeko prozedurei buruzko irizpideak ezarriko dira.

Azkenik, erregelamenduak zehaztuko ditu foroak Enplegu Politika Publikoaren Euskal Kontseiluari, Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalerriei egin diezazkiekeen proposamenak eta gomendioak egiteko, aurkezteko eta horien jarraipena egiteko prozedurak, eta, horrela, indartu egingo dira elkarriketa instituzionala eta enplegu-politika publikoaren kudeaketaren eraginkortasuna.

17 artikuluko ditu, honako hauek arautzen dituztenak, hurrenez hurren: xedea, izaera eta araubide juridikoa, atxikipena eta egoitza, eginkizunak, osaera eta izendapena, lehendakaritza, idazkaritza, bokalak, funtzionamendua, osoko bilkura, batzorde iraunkorra, osaketa eta erabakiak hartzea, bilkuren aktak, lantaldeak, aholkularitza eta laguntza teknikoa, euskararen erabilera, urteko memoria, publizitatea eta gardentasuna.

Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Azaldu den bezala, ekimen honen benetako oinarria EELen 83. artikuluko hiruugarren apartatua eskatutakoa betetzea da.

Kide anitzeko organoak arautzen dituen Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18.6 artikuluko arabera, sortu nahi den kide anitzeko organo horren osakeran Administrazio orokorreko hainbat sailetako edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeetako ordezkariak biltzen direnez, sortzeko arauak dekretu forma izan behar du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 7. artikuluko arabera, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila da arlo horretako eskumena duena.

Azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du, eta xedatzen du Enplegu eta Inklusio Sailburuordetzak beteko dituela enplegu-politikaren, enplegurako prestakuntzaren eta diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako euskal sistemaren arloetan sailari esleitutako eginkizunak.

Era berean, Enpleguaren Euskal Foroaren erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura izapidetzeaz arduratuko den organoa Enplegu Zuzendaritza izango da, enpleguari buruzko arau-proposamenak egitea dagokiolako.

Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.

Ez dio eragingo indarrean dagoen ezein arauri. Ez du araurik indargabetzen edo aldatzen.

Ekonomian eta aurrekontuetan izango duen eragina.

Abenduaren 22ko 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, etorkizuneko araua aplikatzeak ekarriko duen kostua eta arauaren aplikazioak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina aztertzeko. Hasiera batean, kide anitzeko organo hori sortzeak ez du gasturik ekarriko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren kontura.

Bidezkoztat jotzen diren izapideak eta txostenak.

6/2022 Legearen 13.1 artikuluan e) letran xedatutakoaren arabera, hasteko agindua gaiaren eta proposatutako erregulazioaren edukiaren arabera egokitzen jotzen diren izapideak eta txostenak adierazi behar ditu. Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira aurreikusitako agindu-proiektua egiteko eta onartzeko hasiera batean behar diren izapideak eta txostenak:

1.- Aurretiazko kontsulta publikoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan eta 6/2022 Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, xedapen orokorreko proiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat egin beharko da, non eta ez den beharrezkoa arauak garrantzi gutxi duelako edo interes publikoko arrazoi larriak daudelako. Kasu honetan, **2025/05/23/04/23tik 2025/05/23ra** bitartean egin zen kontsulta hori egitea egokitzen jo zen, iragarki-taula elektronikoaren bidez: <https://www.euskadi.eus/administrazioaren-iragarkia/enpleguaren-euskal-foroaren-erregelamenduaren-aurretiazko-kontsulta/web01-tramite/eu/>

2.- Hasteko agindua egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, eta argitalpen honek sail guztiei automatikoki jakinaraztea ekarriko du, hala badagokio, ekimenaren egokitasunari eta aukerari buruzko oharak egin ahal izan ditzaten.

Era berean, prozedura hasteko agindu hau Legesarea ezagutza partekatuko lankidetzaren eremuan txertatuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren, xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituenaren, Lehenengo atalean (1. puntua) ezarritakoaren arabera.

3.- Testua idaztea.

Agindu-proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, lortu nahi diren helburuetara hobekien egokitzen diren aukerak kontuan hartuta, honako printzipio hauen arabera: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia, eta aurreikusitako erregulazioaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzen jotzen diren kontsulten emaitza, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proiektuaren zehaztapena justifikatzen duten arrazoiak eta oinarri juridikoen azalpen egokia txertatu beharko da testuan, 6/2022 Legearen 14.2 artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren

1. puntuan ezartzen den bezala (2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

Egindako testua bi hizkuntzatan idatzi behar da, aldez aurretik onartu aurretik eta ondoren izapidetan, araua idazteko prozesu osoan bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatuz eta hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa eginez, 6/2022 Legearen 14.5 artikulua ezartzen duen bezala, eta Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian xedatutakoa aplikatuz (lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartzen dituen).

4. - Generoaren arabera eraginari buruzko txostena.

Ez da beharrezkoa izango generoaren arabera eraginaren ebaluazio-txostena egitea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bateginaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera (1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategina), bat etorritik Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiarekin, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzen dituen eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen dituen. Gidalerro horietan zehazten denez, funtsean antolamenduzkoak diren arau-proposamenetan ez da beharrezkoa txosten hori egitea, kasu honetan bezala.

5. - Arauen eragina aztertzeke memoria.

6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente izapidetzeko eskumena duen organoak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egingo du nahitaez, xedapen horretan aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin.

6. - Justifikazio-memoria eta memoria ekonomikoa.

Beharrezkotzat jotzen da prozedura izapidetzeko ardura duen organoak azalpen-memoria bat egitea, proposatzen den organoa sortzeko beharra egiaztatzeko eta dagokion edukia zehazteko. Bestalde, kontuan hartuta sortu beharreko organoak ez duela Sailaren aurrekontuaren kontura finantzatu beharreko gasturik ekarriko, ez da beharrezkoa memoria ekonomiko espezifikorik egitea.

7. - Txosten juridikoa.

Beharrezkotzat jotzen da Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak txosten juridiko bat egitea, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

8. - Arau-proiektua aldez aurretik onartzea eta egoitza elektronikoan eta Legesarean argitaratzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak onartu beharko du proiektua, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldez aurreko onarpen-aginduarekin batera, onartutako testu elebiduna eta aurreko ataletan adierazitako gainerako dokumentuak aurkeztuko dira, eta horiek osatuko dute espediente.

Aurretiazko onarpena duen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da, 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan aurreikusitakoaren ondorioetarako bereziki, kontuan hartuta argitalpen honen data aldi berean bideratzen diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango dela.

Aldez aurreko onarpenaren agindua, arau-proiektuarekin batera, Legesarea lankidetzaren eremuan argitaratuko da (2010eko abenduaren 28ko Akordioaren Lehenengo ataleko 2. puntua).

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluekin bat etorriz, Aholku Batzorde Juridikora bidali behar diren dekretu-proiektuak egiteko hasierako fasean, hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman ondoren baino ez du bidaliko xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrera.

9. – Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Arau-testua aldez aurretik onartu ondoren, 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da, eta, horren bidez, herritarren parte-hartzea eskatuko da.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak aldi berean egingo dira, bata besteari atzetik edo beste une batean bete behar ez diren izapideekin batera, epe komun berean, aldez aurretik onartu den testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

10.- Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioei parte hartzea eta kontsulta egitea.

Arau-testua ez da beste administrazio batzuen parte-hartzearen eta kontsultaren izapidearen mende jarriko, ez baitie zuzenean eragiten aurreikusitako erregulazioak, 6/2022 Legearen 18.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.- Nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Prozeduraren instrukzioan, dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek zehazten duten unean eta moduan, arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, eta, zehazki, honako hauek:

A.- Aldi berean eskatuko diren txostenak, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan eta xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Herritarrentzako Arretaren eta Administrazio Berrikuntzaren txostena, sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 21.1.c)

artikuluaren xedatutakoaren arabera.

- Enplegu Politika Publikoen Kontseiluaren txostena, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 71.1.a) artikuluen arabera.

- Foroan parte hartzen duten erakunde adierazgarrienei parte hartzeko eta kontsultatzeko izapidea emango zaie:

- Hiru foru-aldundiak.
- EUDEL.
- Emakunde.
- Sindikatuak: LAB, ELA, CCOO eta UGT
- Confebask.
- Sareen Sarea.
- Unibertsitateak: EHU, Mondragon eta Deustu
- Irakaskuntza:
 - o AICE-IZEA (Asociación Independiente de Centros de Enseñanza)
 - o CECAP Euskadi (Confederación Española de Empresas de Formación)
 - o HETEL (Asociación de Centros de Formación profesional de iniciativa social)
 - o IKASLAN (Asociación de Centros Públicos de Formación Profesional)
 - o ACADE (Asociación de Centros Autónomos de Enseñanza Privada de Euskadi)
- Kooperatibak: Konfekoop y Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.
- Eusko Ganberak.
- ABAT (Euskadiko autonomoen elkartea)

Ez da nahitaezkoa Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, arau horrek ez baitu eragin berezirik ekonomia- eta gizarte-politikan (alderantziz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.b artikulua).

B- Informes esenciales que se cumplimentarán de forma sucesiva, una vez finalizados los trámites anteriores:

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta arau-kontrolari buruzko txostena, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean eta EAEko barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Batzorde horren irizpenaren iradokizunen ondorioz aldaketak gertatzen badira, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinaraziko zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren 27.1 artikulua betez.

- Irizpenerako Euskadiko Aholku Batzorde Juridikora bidalitako dokumentazioa Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981

Legearen 56. artikulua erekin eta Euskadin xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 25. artikulua erekin bat etorri, arauen kalitatea eta herritarren parte-hartzea hobetzeko helburuarekin.

12.- Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitako dokumentazioarekin osatuko da (hasteko agindua, alde aurreko onarpenerako agindua, proiektuaren lehen testu integratua, arau-eraginari buruzko memoria, egindako azterlanak eta kontsultak eta nahitaezko txostenak eta irizpenak, eta horiei erantsiko zaizkie, argi eta garbi identifikatuta, izapidean zehar idatzitako xedapenaren testu artikulatu guztiak, horietako bakoitzak zein unetan erantzuten duen zehaztuta), eta memoria labur bat erantsiko zaio prozedura osoari, aipatutako 24. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

13.- EHAAn argitaratzea.

Araua onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bi hizkuntza ofizialetan, indarrean sartzeko eta ondorio juridikoak sortzeko, 6/2022 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Ez da ikusten Europar Batasunean izapiderik egin behar denik.

Idazteko sistema.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) erabiliko duen itzulpen-sistema erabiliko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzea zehazten duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin bat etorri.

Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea.

Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, xedapen orokorrak egiteko prozeduran izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozedura elektronikoki izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2012ko azaroaren 27ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Horregatik, adierazitako aurrekari guztietan oinarrituta, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- "Euskal Enplegu Foroaren Erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua" egiteko prozedura hastea.

BIGARRENA.- Enplegu Zuzendaritza izendatzea aipatutako prozedura izapidetzeko organo arduradun.

HIRUGARRENA.- Hasteko agindu honen berri ematea egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta "Legesarea" lankidetza-gunean, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabakian xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA.- Araua egiteko eta arauaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko beharrezkoak diren azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

MIGUEL TORRES LORENZO

**Jaurlaritzako bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enplegu
sailburua**